

Batzar Orokorrak

Definitzen ditu
Espainiako Gurutze Gorriaren datorren aldirako jardun-konpromisoak

2015
2019

Konpromisoak hitzartzen ditu
pertsonengandik gero eta hurbilago egoteko

Nolakoak izan nahi dugu datozen urteetan?

Pertsona kaltebetei giza garapenaren eta garapen komunitarioaren ikuspegitik erantzungo dien eta pertsona horien gaitasun indibidualak gizarte-testuinguruan sendotuko dituen boluntario-izaerako eta gizartearen erabat errotutako erakunde humanitarioa.

Estatuko eta nazioarteko eremuetan pertsona kalteberengandik gero eta hurbilago egotea, funtsean boluntarioek egingo dituzten eta parte-hartze sozial eta lurralde-presenzia handia izango duten ekintza integratuen bidez.

Zer lortu nahi dugu?



Zer egingo dugu lau urte hauetan?

2015
2019

Gure Printzipio eta Balioetan oinarrituta,
nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren eta Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen zabalkundea sustatuz, gure oinarritzko printzipio eta balioen inguruan dugun kohesioa areagotuz, eta, Diplomazia Humanitarioaren bitartez, eragiteko dugun ahalmena bultzatuz.

Kalteberatasun-egoerei erantzunez,
gure jardunak gizarte-aldaketetara eta gizarte-eskarietara egokituz, esku-hartzearen ikuspegi integrala sustatuz, eta prebentzio-alderdia zein eraldaketa-dimentsioa sendotuz.

Gurutze Gorri konprometituagoa

Gizartearekin bat eginez,
boluntariotzak herritarren parte-hartzean, lankidetzaren eta elkartasunean erantzun- eta estimulu-elementu gisa betetzen duen zeregina bultzatuz, osasunaren, sorospenen eta larrialdien eremuak lotutako sustapenean, trebakuntzan eta hezkuntzan erreferentzia izatea lortuz, eta sareak eta aliantzak gizarte-eraldaketarako elementu gisa sustatuz.

Etengabe bilakatuz,
gure lurralde-sarea sendotuz, finantzaketa-iturriak dibertsifikatuz, kudeaketa-eredua hobetuz, eta gardentasunaren, gobernu onaren eta kontuak emateko zereginaren hobekuntzan sakontuz, oinarritzko alderdiak baitira herritarrek erakundearen duten konfiantza bermatzeko.

Norentzat egiten dugu lan?

- Krisiak kaltetutako pertsonentzat eta familientzat**

Krisia gainditzeko beharrezkoa den babesa emanez.
- Haurrentzat**

Aukera-berdintasuna bultzatuz, oztupoak ezabatuz eta heziz.
- Adinekoentzat, mendekoentzat eta zaintzaileentzat**

Etxean jarraitzeko aukera eta zahartzere aktibo eta osasungarria bultzatuz.
- Gazteentzat**

Gazteak aktibatuz, beren autonomia eta garapen pertsonala sendotzeko.
- Etorkinentzat eta errefuxiatuentzat**

Arreta humanitarioa ziurtatuz eta gizarteratzen lagunduz.
- Kalteberatasun-egoera larrian dauden pertsonentzat**

Egoera larrian dauden pertsonen premia animiko eta materialak arinduz.
- Gizarte-zailtasunak dituzten emakumeentzat**

Kalteberatasun handiko egoeran dauden emakumei (eta, batez ere, genero-indarkeria jasaten dutenei) beharrezko babesa emanez.
- Adikzioak dituzten pertsonentzat**

Kalteak prebenituz, arinduz eta murriztuz.
- Dibertsitate funtzionala duten pertsonentzat**

Eguneroko jarduerak zailtasunik gabe eta baldintza berdinetan egiten lagunduz.
- GIBA duten pertsonentzat**

Kaltetutako kopurua murriztuz, seropositiboek laguntza emanez, eta estigmaren aurka borrokatuz.
- Askatasunaz gabetutako pertsonentzat**

Gizarteratzea bultzatuz eta kalteen konponketa erraztuz.
- Langabezia-egoeran dauden pertsonentzat**

Lan-aktibazioko ekimenen bitartez, enplegarritasuna hobetuz, lan-merkatuan txertatzeko aukera erraztuz eta autoenplegu-ekimenak babestuz.
- Sorospen eta larrialdietarako**

Hainbat mota eta mailako larrialdiei aurre egiteko gaitasunak baliatuz, kasu bakoitzean eskumena duten agintariekin koordinatuta.
- Osasunerako eta Biztanleriarentzat, oro har**

Prebentzioaren eta oihitura osasungarrien sustapenean bitartez.
- Prestakuntzarako**

Pertsonen gaitasunak eta trebetasunak hobetuz.
- Ingurumenerako**

Ingurumenaren nariadurak pertsona kalteberengan eraginik izan ez dezan esku hartuz, eta ingurumena hobetzen lagunduz.
- Nazioarteko lankidetzarako**

Gure elkartasun-konpromisoa beste herrialde batzuetako herritarrik kalteberenei helaraziz.
- Ikerketak egiteko eta gizarte-berrikuntzarako**

Gure erabiltzaileen egoerari buruzko analisisian eta jakintzan oinarrituta, pertsonen arreta hobetuz.